



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/07/13

Batzar Nagusiek ez dabe onartu egoitza publikoetako eta egoitza kontzertatuetako beharginen lan baldintzak parekatzerik

Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizarte Ekintzako batzordeak ez dau onartu Aldundiak “egoitza publikoetako eta kontzertatuetako beharginen lan baldintzetan berdintasuna bermatu” behar dauenik. Planteamedu parekide hori EH Bilduko taldeak defendidu dau gaur. Podemos Bizkaia proposamenaren alde agertu da, eta EAJ-PNV, PSE-EE eta PP, barriz, kontra.

David Lopategi EH Bilduko batzordekideak, daborduko “200 egun baino gehiago” irauten dituan pertsona nagusien egoitzen greban kokatu dau arauz besteko proposamenaren aurkezpena. Bere berbetan, Bizkaiko egoitza publikoetako beharginek laneko baldintza jakin batzuk ditue, eta “diru publikoz ordainduta dagozan” arren, beste enpresa batzuek kudeatzen dituen zerbitzuak eskintzen dituen kontzertatutako egoitzetako beharginek, barriz, lan baldintza “txarragoak” ditue. Bere eskaria justifiketako orduan, baliabide berberen bitartez ordaintzen diran zerbitzuek “laneko baldintza berberak” eskini beharko leukiezala esan dau.

Koalizino abertzalearen proposamenak batzarretako Podemos Bizkaia taldearen aldeko eretxia baino ez dau jaso. Josean Elgezabal talde horretako batzordekideak kritikau egin dau gaur egun Bizkaian dagon egoitzen eredia, “ez dauelako zerbitzuaren kalitatea bermatzen”. Bere berbetan, Aldundiak, “lan arloko arazo hori konpontzeko immobilismoa eta autokritika faltea” erakusten ditu. Egiten ari dan grebea, “pribatizaziorako bidea daroan ereduaren ondorioa” da. Foru Gobernua eusten daben taldeei galdetu deutsee ea euren eretxiz “bidezkoa dan behar berbera egiteagaitik lan baldintza txarragoak eukitea”.

EH Bilduk aurkeztu dauen arauz besteko proposamena ez da onartu, Batzarretako EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeak kontra agertu diralako. Hiru taldeek gaur egungo eredia defendidu dabe, “hobetu leikela” uste daben arren. Eduardo Andrés PP taldeko batzordekidearen eretxiz, EH Bilduren asmoa sektore pribaduko behargin “guztiak funtzionario bilakatzea da, EEP-OPE bat gainditu barik”. Hori bai, “laneko baldintzak hobetzearen” alde agertu da, baina EH Bilduk lan arloko gatazka “eredua zalantza jarteko erabiltea” penagarria dala esan dau.

PSE-EE taldeak, bere aldetik, defendidu egin dau greban dagozan pertsonen behargin publikoen “antzeko” lan baldintzak eta “soldata duinak” izatea, baina konponbidea ez da hori “dekretuz” egitea. “Estaduko Abogadutzaren helegitea jasoko genduke”, esan dau ironiagaz eta, gainera, Aldundian “aurrekaria” zabalduko litzateke. “Zergatik ez dogu gauza bera egingo beste kategoria batzuekaz, basoko beharginakaz edo abogaduakaz, adibidez?”, galdetu dau Juan Otermin sozialistak.

EAJ-PNVk, Celia Gómez batzordekidearen bitartez, “lurrera jaisteko” eskatu deutso EH Bilduri, aurkeztu dauen proposamena “errealidatetik urrun dagolako”, eta hori apliketea “ulertuezina” dalako. Batzordekide jeltzaleak uste dauenez, Aldundia “ezin da” lan arloko negoziazioetan “sartu”, horreek patronalaren eta sindikatuen arteko hartu-emonen barruan dagozalako. Aldundiak “zerbitzuaren kalitatea” zaindu behar dau. Gai hori ez da Foru



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Aldundiaren “eskumenen barruan sartzen”, esan dau. Gainera, kritikau egin dau “lanpostu batera modu desbardinean heldu diran pertsonak maila berean jarteko” asmoa. Proposamena “demagogoa da”, adierazo dau.

EH Bildu taldeak, Gizarte Ekintzako foru sailak legealdiaren erdian egindakoaren balantzea aurkezteko aurretik eskatu dauen agerraldian, Isabel Sánchez Robles diputatua “arduratuta” agertu da, lan arloko gatazkea ez dalako oraindino konpondu. “Danok egin behar dogu behar aldeek akordioa lortu daien”, esan dau, baina zalantzan jarri dau akordioa lortzeko borondaterik dagonik. “Akordiorako borondate hori non dagon jakin gurako neuke”, gehitu dau.

Diputatu andreak gogorarazo dauenez, egoitza pribaduetan eskintzen diran 6.000 plaza baino gehiagoetatik, Aldundiak “2.593 plaza kontzertau” ditu, eta esan dau tamalgarria dala plaza horreek kontzertetako plegu barriak, daborduko “fiskalizazino eta izapidea” prozesuan dagozanak, lan arloko gatazkea konpondu barik kaleratzea.

ARARTEKOAREN AGERRALDIA

Manu Lezertua Arartekoa lehen aldiz etorri da Bizkaiko Batzar Nagusietara, 2016ko abenduaren 14an Eusko Legebiltzarreko Lehendakaritzari emon jakon Euskadiko Gizarte Zerbitzuen inguruko Txostenaren barri emoteko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
13/07/2017

Las Juntas Generales rechazan equiparar las condiciones laborales del personal de las residencias públicas y de las concertadas

La comisión de Acción Social de las Juntas Generales de Bizkaia ha rechazado que la Diputación tenga que “garantizar la igualdad en las condiciones laborales del personal de las residencias públicas y de las concertadas”. Este planteamiento paritario ha sido defendido hoy por el grupo juntero de EH Bildu que ha recibido el apoyo de Podemos Bizkaia, y el rechazo de PNV, PSE-EE y PP.

El apoderado de EH Bildu, David Lopategi, ha enmarcado la presentación de la proposición no de norma en la huelga de residencias de mayores, que dura “más de 200 días”. Según él, el personal de las residencias públicas de Bizkaia tiene unas condiciones laborales determinadas, y el personal de las residencias concertadas, “sufragadas con dinero público”, según él, pero con servicios gestionados por otras empresas, disponen de “peores” condiciones laborales. Ha justificado su petición en que los servicios sufragados a través de los mismos recursos deberían ofrecer “iguales condiciones laborales”.

Su propuesta sólo ha concitado el apoyo del grupo juntero Podemos Bizkaia. Josean Elgezabal, apoderado de esta formación, ha criticado el actual modelo residencial de Bizkaia, ya que “no garantiza la calidad del servicio”. Según él, existe por parte de la Diputación “inmovilismo y falta de autocrítica” para resolver el conflicto laboral. La actual huelga es “una consecuencia de un modelo que tiende a la privatización” y ha preguntado a los formaciones que apoyan al Gobierno foral si consideran “justo que con el mismo trabajo se tengan peores condiciones laborales”.

La proposición no de norma de EH Bildu ha decaído por el rechazo de los grupos junteros del PNV, PSE-EE y PP, que han defendido el modelo actual, aunque creen que es “mejorable”. Para el juntero del PP Eduardo Andrés, la pretensión de EH Bildu es convertir a “todas” las personas trabajadoras del sector privado “en funcionarios sin cumplir con una OPE”. Eso sí, se ha mostrado partidario de “mejorar las condiciones laborales”, para seguido lamentar que EH Bildu “utilice” el conflicto laboral “para cuestionar el modelo”.

Por su parte, el PSE-EE ha defendido que las personas en huelga tengan condiciones “similares” a los empleados públicos y “salarios dignos”, si bien no cabe como solución el que sea “por decreto”. “Tendríamos un recurso de la Abogacía del Estado” ha ironizado el socialista Juan Otermin, y se abriría “un precedente” en la Diputación. “¿Por qué no hacer lo mismo en otras categorías como forestalistas o abogados?”, ha preguntado.

El PNV, en boca de su apoderada Celia Gómez, le ha pedido a EH Bildu que “baje a la tierra” ya que su propuesta “se aleja de la realidad” y su aplicación es “incomprensible”. La juntera jeltzale cree que la Diputación “no debe involucrarse” en las negociaciones laborales, ya que forman parte del marco de relaciones entre patronal y sindicatos, aunque sí cree que debe velar “por la calidad del servicio”. A la institución foral “no le corresponde competencialmente”, ha



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dicho. Ha criticado además que se plantee “igualar a personas que han accedido de forma diferente a un puesto de trabajo”. La propuesta “es demagoga”, según ella.

En una comparecencia previa, pedida por EH Bildu para que el departamento foral de Acción Social hiciera un balance de gestión en el ecuador de la legislatura, su responsable, Isabel Sánchez Robles, se ha mostrado “preocupada” por la no resolución del conflicto laboral en las residencias. “Todos a una debemos abogar por que las partes acuerden” ha dicho, si bien la diputada ha puesto en duda la existencia de voluntad de acuerdo. “Me gustaría saber dónde está esa voluntad de acuerdo”, se ha preguntado.

La diputada ha recordado que la Diputación tiene “2.593 plazas concertadas” de las más de 6.000 que se ofrecen en las residencias privadas y ha lamentado que los nuevos pliegos para la concertación de estas plazas, que están en proceso “de fiscalización y trámite”, se lancen sin que el conflicto laboral se haya resuelto.

COMPARECENCIA DEL ARARTEKO

Por primera vez, el Ararteko, Manu Lezertua, ha comparecido en las Juntas Generales de Bizkaia para dar cuenta del Informe sobre los Servicios Sociales del País Vasco que fue entregado a la Presidencia de la Cámara Vasca el 14 de diciembre de 2016.